



Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDAZIOA

2017KO OTSAILAREN 1EKO EBAZPENA, GIPIIZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOAREN KONTRATAZIO MAHAIARENA, ARANTZAZUKO PARKETXEAN (OÑATIN) ARRETA ETA DINAMIZAZIO ZERBITZUA EMATEKO 002/2016 KONTRATUA ESLEITZEN DUENA

ONDORIOZ: Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren Patronatoak 2016ko abenduaren 22an adostu zuen Arantzazuko parketxean (Oñatin) arreta eta dinamizazio zerbitzua emateko 002/2016 espedientea onartzea, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuz esleitzeko, gehienez 48.000 euroko aurrekontua xedatuta, eta Fundazioak zehaztutako administrazio klausulen pleguen eta baldintza teknikoen agiriaren arabera.

ONDORIOZ: Kontratua, dituen zenbatekoa eta edukia aintzat hartuta, 2. mailako kontratu gisa sailkatu zen Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioko Patronatoak 2010eko irailaren 13an onartutako barne kontratazio arauen arabera. Arau horiek Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren webguneetan (<http://www.gipuzkoamendizmendi.net/parketxeak> eta <http://www.parketxesarea.org>) argitaratu ziren. Hala, kontratua prozedura negoziatu bidez esleitu ahal izango da, Fundazioko Patronatuak horixe erabaki zuelako, hain zuzen, 2016ko abenduaren 22an egin zuen bezala.

ONDORIOZ: Lizitazio-deialdia, administrazio-klausulen pleguak eta baldintza teknikoen agiria 2016ko abenduaren 26an igorri zitzairen prozedura negoziatuan parte hartu behar zuten *Arazi SL*, *Artelatz SL* eta *Tantai SL* enpresei.

ONDORIOZ: Proposamenak aurkezteko epea 2017ko urtarrilaren 16an amaitu zen. Honakoak dira jaso direnak:

- ARTELATZ S.L.-k proposamena aurkeztu zuen 2017ko urtarrilaren 16an.
- TANTAI S.L.-k proposamena aurkeztu zuen 2017ko urtarrilaren 16an.

ONDORIOZ: Kontratazio mahaia, Arantxa Ariztimuño anderea (Patronatuaren presidenteordea) buru zuena eta, Mikel Biain Berraondo jauna (Oñatiko Alkatea), Luis María Zaldúa Etxabe jauna (Fundazioaren zuzendaria) mahaikide zituena eta Alfonso Acarreta Rodríguez jauna idazkari (hitz egin bai, baina bozkatze eskubiderik ez zuena) gisa zuena, 2017ko urtarrilaren 31n bildu zen, aurkeztutako proposamenak aztertu, ikuskatu eta baloratzeko.

KONTUAN HARTU DUTE: Kontratazio mahaia, proposamena aztertu ondoren, ARTELATZ SL-ri kontratua esleitzea proposatu du, enpresa horren proposamena egokia delako, ikuspegi teknikoari eta kalitateari dagokionez, behintzat, fundazioaren nahiak betetzeko.



Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDAZIOA

Erreferentziako espedienteak dituen pleguak, jasotako dokumentazioa, aipatutako xedapenak eta aplikazio orokorreko gainerako kontuak aztertu dira.

EBATZI DUT:

LEHENDABIZI- ARTELATZ SL-ri (IFZ: B-20959995) erakundeari esleitzea 002/2016 zenbakidun kontratazio espedienteak, Arantzazuko parketxean (Oñatin) arreta eta dinamizazio zerbitzua kontratatzeko. Esleipenaren zenbatekoa guztira, 47.304 eurokoa da, BEZ barne.

BIGARRENA.- Sektore publikoko kontratazio legearen testu bateratuaren 151. eta 153. artikuluetan adierazitakoaren arabera, interesatuek kontratazio mahaiari eskatu ahal izango diote proposamenak baztertzeko erabilitako arrazoiei buruzko informazioa, hala nola esleipena jasotzeko erabakigarriak diren ezaugarrien ingurukoa.

HIRUGARRENA.- Honako ebazpena jakinaraziko zaie interesatuei eta kontratazio organoaren profilean argitaratuko da (<http://www.gipuzkoamendizmendi.net/parketxeak> eta <http://www.parketxesarea.org>), sektore publikoko kontratazio legearen testu bateratuaren 53. eta 151. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Kontratua jakinarazpena jasotzen denetik kontatzen hasita hamabost laneguneko epean sinatuko da.

Donostian, 2017ko otsailaren 1ean

Alfonso Acarreta Rodríguez
Kontratazio mahaiako idazkaria

Arantxa Ariztimuño Larraza
O. E. Mahai burua